

GAKO EKONOMIKOAK

- Gerra komertziala, ziurgabetasun politikoak eta banku zentralaren jardunak dira protagonista, oraindik ere, hazkunde global apalagoa nagusi den inguruabar honetan.
- Otsaila itxiera positiboekin amaitu da munduko burtza nagusietan.
- Errenta finkoari dagokionez, merkatuan baikortasun-sentsazioa handitu izanak babes eman dio zor subiranoaren errentagarritasunean goranzko mugimenduari, banku zentralen adierazpenen ostetik tasek beheranzko joera nagusia duten honetan.
- Eurogunean argitaratutako datu makroekonomiko ahulek apur bat oztopatu dute euroaren kotizazioa. Lehengaiei dagokienez, nabarmentzekoa da petrolioaren prezioaren gorakada.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Burtsa-indize nagusiek igorekin amaitu zuten otsaila, indar hartzen diren merkatu batzuek izan ezik, ezin izan baitzituzten zenbaki gorriak saihestu. Amerikako Estatu Batuen eta Txinaren arteko merkataritza-negoziazioek eta AEBko administrazioa berriz ez iteko lortutako akordioek bultzada eman zieten merkatuei, oraindik ere ziurgabetasunak indarrean jarraitzen duten ingurune batean (hazkunde ekonomikoaren indar ahulak eta Brexitaren ondorioz erregistratutako ahuldadeak, batez ere). Nahiz eta otsailean hainbat gorabehera izan ziren Estatu Batuen eta Txinaren artean, badirudi gero eta hurbilago dagoela bi potentzien arteko akordioa. Hain justu, Trump presidenteak jakinarazi zuen atzeratu egingo zutela martxoaren 1erako aurreikusitako muga-zergen iguera, Txinako ehunka inportaziori aplikatzekoa, alegia. Halere, hilean zehar argitaratu diren datu makroekonomikoen tonuak (hala nola manufakturako PMI indizearen ahultasuna eurogunean eta Txinan, Alemaniako ekonomiaren geldialdia edota Amerikako txikizkako salmenta apalak) oraindik ere erakusten du munduko hazkunde ekonomikoa moteltzen ari dela. Ildo horretan bertan, Europako Batzordeak eta Ingalaterrako Bankuak nabarmen murriztu zituzten aurreikuspenak, eurogunerako eta Erresuma Baturako egindakoak, hurrenez hurren. Hori guztia, halere, jakinik Theresa Mayk Parlamentuaren babesa jaso zuela beste bozketa batean, Irlandako mugarako ordezkio mekanismo bat topatzeko, backstop edo muga gogorra ez dena. Halere, diru-agintaritzan mezuei esker, beste behin ere, lortu zen ahultasun makroekonomikoa bigarren planoan geratzeko; izan ere, otsailean Europako Banku Zentralaren eta Erreserba Federalaren Sistemaren aktak argitaratu ziren. Europako diru-agintaritzak nabarmendu zuenez, hurrengo topaketan hainbat auzi landuko dituzte, hala nola likidezia-eragiketa batzuk berriro ere aktibatzea. Bestalde, Erreserba Federalak bere jarrera "pazientea" berretsi zuen, etorkizunean interes-tasak igotzeari begira. Azkenik, maila korporatiboari dagokionez eta emaitzen denboraldiari lotuta, AEBn zein Europan argitaratutako mozkinak esperotakoa gainditu zuten, nahiz eta hurrengo hiruhilekoetarako aurreikuspenak beherantz zuzendu diren.

ERRENTA ALDAKORRA

Estatu Batuen eta Txinaren arteko berehalako su-eten komertzialaren aukerak handitu egin zuten inbertsiogileen baikortasuna; hala, bigarren planoan utzi zuten indarrean diren ziurgabetasunak sortutako kezka oro. Baikortasun horri esker, Europako merkatuek lortu zuten otsaila % 4,39ko aurrerapenekin itxia Eurostoxx50 indizean, edota % 2,40koarekin Espainiako selektiboan (9.277 punturekin amaitu du hila, maximoak urritik hona, datorren apirilaren 28an hauteskunde orokorrak deitu diren hilabetean). Jarrera on hori bera nabari zen Amerikako merkatuetan ere: S&P500 % 2,97 igo zen, eta Dow Jones, berriz, % 3,44. Bestetik, indartzen ari diren merkatuetan, Txinako nabarmendu behar da: orain arteko hilik onena erregistratu baitzuen 2015eko apiriletik, % 13,8 igo ondoren. Bestalde, Mexiko, Brasil eta halako merkatuek itxiera negatiboa izan zuten.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2019ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.277,7	EUR	%8,64
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.298,26	EUR	%9,89
S&P-500	AEB	2.784,49	USD	%11,08
DOW JONES	AEB	25.916	USD	%11,10
NASDAQ 100	AEB	7.097,52	USD	%12,13
NIKKEI-225	JAPONIA	21.385,16	JPY	%6,85
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.050,95	USD	%8,82
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.085,845	EUR	%10,72

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Arrisku handiagoko posizioen aldeko apetituak gorantz eraman zituen zor subiranoaren errentagarritasunak, bai Estatu Batuetan, bai Europan. Hala, Amerikako bonuaren hamar urteko errentagarritasuna oinarritzko bederatzi puntu igo zen, % 2,72raino, eta Alemaniako bonuaren hamar urteko tasa, berriz, oinarriko hiru puntu handitu zen, % 0,18raino. Halere, azpian dagoen joerak beherantzko presiorantz jarraitzen du, banku zentralen mezuen ostetik. Espainiako zorrari dagokionez, hamar urterako bonuari eskatzen zaion errentagarritasuna oinarritzko bi puntu murriztu zen, % 1,17raino, eta arrisku-prima, berriz, oinarritzko bost puntu hobetu zen, oinarritzko 100 punturen azpitik geratuz. Kredituak, bestalde, hobera egin zuten, diferentzialak estututa.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2019ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,31	0,00
	6 HIL.	-0,23	0,01
	12 HIL.	-0,11	0,01
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,52	0,09
	5 URTE	-0,28	0,04
	10 URTE	0,18	-0,06
	2 URTE	-0,26	-0,02
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	5 URTE	0,18	-0,15
	10 URTE	1,17	-0,24

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Atlantikoaren bi aldeetan moneta-laxotasuna ageri den testuinguruan, euroguneak argitaratutako datu makroekonomiko ahulek eta Brexit gogoraren beldurrak eragindako ezegonkortasun politikoak kalte egin zioten euroari, eta dollarraren aurrean balioa % 0,50 galduta amaitu zuen hilabetea. Lehengaiei dagokienez, petrolioaren prezioa % 8,01 garestitu zen. Saudi Arabiak jakinarazitako murrizketa osagarriek eta Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak gidatutako eskaintza-murrizketak lagundu egin zioten kotizazioari.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg

